

# Atxikimendua ala erresistentzia? Bizkaitar gizartearen erantzuna(k) «estatu berria» finkatzearen aurrean. 1937-1945

Erik Zubiaga Arana  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Artikulu honen helburu nagusia gerraosteko lehendabiziko urteetan Bizkaiko gizarte zibilean agertutako jarrera sozial anitz eta konplexuak aztertzea da. Horretarako lehengo atalean, «estatu berriak» garaipen militarra erdietsi ondoren ezarritako bi politika nagusien azalpen laburra aurkezten da: politika errepresiboa eta erakartze-politika. Neurri errepresibo anitzek «arerio» politikoen neutralizazioa eta altxatuen kohesioa bilatzen zuten heinean, erakartze-politikek erregimen berriaren legitimazioa zuten helburu. Testuinguru horretatik abiatuz, beraz, 1937 eta 1945 urteen bitartean bizkaitarrek «estatu berriarekiko» izandako portaera sozialen bilakaeraren analisia eskaintzen da, hots, onespen aktiboa edo pasiboa, kolaborazionismoa, erresistentzia edo integrazioa bezalako jarrerren ikerketa. Horrela, bada, aztergai honek —jarrera sozialak testuinguru totalitarioetan— bai Espainian bai nazioartean eragin dituen eztabaida historiografikoak aintzat hartuta, ondoko testua oraindik ikertzeke dagoen euskal historiaren pasarte garrantzitsu baten lehen hurbilketa akademiko gisa aurkezten da.

GAKO-HITZAK: Frankismoa · Jarrera sozialak · Gerraostea · Bizkaia.

## Support or resistance? Biscay society response(s) to the establishment of the «new state». 1937-1945

This article explores social attitudes emerged in Biscay during the early post Civil War years. In this regard, in the first place it analyses the main two policies implemented by the Francoist regime in order to ensure the establishment of the «new state»: repressive and recruitment policies. The assumption here is that while repressive measures managed to neutralize political dissident and unite the group of rebels, recruitment policies pursued the legitimacy of the «new order». In this context, this article examines social attitudes evolution in Biscay during 1937 and 1945, such as, passive or active consent, collaborationism, resistance or integration attitudes. In short, this study, located at the academic debate that this issue—social attitudes in totalitarian contexts— has generated in Spain and in the international field, is a first approach to an important unknown area of the Basque Country history.

KEY WORDS: Francoism · Social attitudes · Post-war era · Biscay.

*Jasotze data:* 2016-09-08 *Onartze data:* 2016-12-08

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Azken urteotan frankismo garaiko gizarte zibilean agertutako portaera sozialak jorratzen dituzten ikerketa dezente argitaratu dira<sup>2</sup>. Ikerketa horiek herritarren eta diktadura frankistaren arteko harremanen konplexutasuna eta garrantzia agerian utzi ditzute. Izan ere, gaur egun jarrera sozialen erabakigarritasuna estatu ororen bilakaeran ez du inork zalantzan jartzen. Hala ere, nahiz eta argitaratutako lanen ekarpenen baliagarritasuna ukaezina izan, frankismoa aztergaitzat duen historiografiak lan asko du Europa mailan beste estatu totalitarioei buruz egin diren lan eta eztabaida-mailekin parekatzeko<sup>3</sup>. Hain justu, artikulu honek, era apal batean noski, historiografikoki ezezaguna den pasarte bat aztertzen duen heinean, aipatutako bi talde historiografiko horien distantziak murriztea ere du helburu.

Jarrera sozialak aztertzen dituen ikertzaile orok, are gehiago testuingurua estatu totalitario edo diktatorial batean kokatuta baldin badago, nahitaez zailtasun jakin batzuekin lan egin beharra duela barneratu behar du. Alabaina, portaera sozialen berezko izaera dinamikoak, anizkoitza, aldakorra eta hein handi batean kontrajarria ere izanik, bere azterketa benetan zailtzen du. Horrela, bada, adituek dioten bezala, guttiz desegoki deritzogu portaera sozialak era dikotomiko eta erredukzionista batean aurkezteari, zehatzago esanda, gure ustetan adostasuna/kontsentsua versus desadostasuna/aurkakotasuna bezalako interpretazioen sinpletasuna erabatekoa da. Izan ere, bai Europa mailan eta bai Espainia mailan egindako ikerketen arabera, gobernu diktatorialen menpe bizi diren herritarren gehiengoaren jokabideek aurpegi ezberdin asko erakusten dituzte estatu horrekiko, hots, egoera eta interes jakin batzuk direla medio, pertsona bakar batean erraz asko portaera ezberdin asko antzeman daitezke. Horrela, bada, Primo Levi-k (Levi, 1989) sortutako terminoa erabiliz, espainiar gerraosteko gizartearen gehiengoa «zonalde gris» zabal batean kokatuko litzateke, alegia, ez guttiz beltz ez guttiz zuri (Cazorla, 2002: 303-320; Del Arco, 2009: 250; Saz, 2013: 223-224).

Hemen erabiliko dudan paradigma esplikatioak ez du estatu frankistaren finkatzea eta biziraupena soilik faktore errepresiboetara mugatzen. Beste era batera esanda, jakina da politika errepresiboa izan zela frankismoaren identitatearen adierazle nagusi gorena, haren funtsezko pilarea; bestalde, egia da ere «estatu berriak» instrumentu errepresiboez gain «kaptazio-neurriak» ere garatu zituela gizartearen zati handi baten onespina, izan interesatua edo benetakoa, lortzeko asmoz. Buruzagi frankistek bazekiten ezinbestez, gutxienez, hiru helburu erdietsi

---

1. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen GRUPO DE INVESTIGACIÓN DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO DE HISTORIA SOCIAL Y POLÍTICA DEL PAÍS VASCO CONTEMPORÁNEO (IT-429-10) taldeko kidea. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatzen duen eta Antonio Riverak zuzentzen duen «Violencia política, memoria e identidad territorial. El peso de las percepciones del pasado en la política vasca» proiektuko kidea ere (HAR2014-51956-P). Halaber, UPV/EHU dokortatu ondoko prestakuntza-programetan sartu arte doktore berriak kontratatzeko 2016ko deialdiaren onuraduna. Pedro Berriochoa eta honen lagunari eskerrak eman nahi dizkiet eskainitako laguntzagatik.

2. Ikerketa gutxi batzuk aipatzearen: Hernandez, 2013; Cobo eta Ortega, 2005; Sevillano, 2003; Cenarro, 2002; Cazorla, 2002.

3. Ikusi bestela atzerrian Italia faxista, Alemania nazia, Sobietar Batasuna, Alemaniako Errepublika Demokratikoa edo Vichy-ren Frantziari buruz sortutako eztabaida akademikoak. Adibidez, Gellately, 2004; Burrin, 2003; Geyer eta Fitzpatrick, 2009; Bosworth, 2005.

behar zituztela sistema politiko berriaren egonkortasuna, beraz biziraupena, bermatu ahal izateko: disidentzia politikoaren neutralizazioa, gizarte zibilaren gehiengoaren onespina —izan pasiboa izan aktiboa—, eta esparru diplomatikoan tentuz jokatzeara. Europako beste erregimen totalitarioetan gertatu moduan, botere frankistaren bizirauteak halabeharrez gizarte zati handi baten onespina boluntarioa behar zuen (Cobo eta Romero, 2005: 282). Emilio Mola jeneralak 1937ko otsailan errandako hitzek perfektuki islatzen dute buruzagi frankistek gizarte zibilaren portaeren bilakaerei buruz zeukaten ardura.

Gobernu-sistema bat kontsolidatu ahal izateko —zioen Mola jeneralak— hiru baldintzaren konkurrentzia ezinbestekoa da: iritzi publikoaren edo gehiengo garrantzitsu baten onspina tazitu edo esplizitua, eduki politiko positibo bat eta ezarri behar den herriaren errealitate historikoa ez alboratzea (Mola, 1940: 1.191)<sup>4</sup>.

Horrenbestez, testu honetan erabiliko den interpretazioaren arabera, estatu frankistaren egonkortasuna, hein handi batean behintzat, zigortze- eta erakartze-politiken arteko nolabaiteko oreka batean oinarrituta egon zen (Calvo, 1995a: 149).

Hain zuzen ere, hurrengo lerroetan Bizkaian estatu frankistak bere proiektua finkatzeko prozesua bermatzeko ezarritako politiken bilakaera eta ondorioak aztertuko dira. Horrela, bada, lehenik altxatuek ezarritako neurri errepresiboen eta atxikitze- edo erakartze-politiken errebaso laburra egingo da, eta, bigarrenik, politika horiek Bizkaiko gizartean eragindako askotariko erreakzioak landuko dira. Horrenbestez, gerraosteko lehen urteetan bizkaitarrek «estatu berriarekiko» izandako harremanen konplexutasuna eta aniztasun-maila ezagutzeko parada egongo da, alegia, atxikimendua, erresistentzia, kolaborazionismoa, pasibotasuna, indiferentzia eta, besteak beste, onspina interesatua bezalako jarrera sozialen protagonismoa neurtzeko aukera.

## 2. Errepresioa

Jakina denez, 1937ko ekainaren 19an tropa frankistek Euskadiko azken hiriburu errepublikanoa, Bilbo, konkistatu zuten. Unitate frankisten sarrera triumfala izan zen. Izan ere, hiriaren azpiegitura guztiak, zubiak izan ezik, suntsitu gabe pasa ziren altxatuen eskuetara. Hori gutxi balitz, Pio Maidagan Otxandiano batailoiko kapitainak eta Rafael Garcia Valiñok hitzartutako akordioaren ondorioz, «Bilboko paktua» deitu izan ohi dena, 5.000 gudari inguru armamentu kopuru handi batekin batera Bilbon errenditu ziren (De la Granja, 1989). Horretaz gain, egun batzuk geroago, ekainaren 22an, beste 2.000 gudari inguru italiar «gezi beltz»-en aurrean errenditu ziren Bilbo ezker aldeko industria garrantzitsuenen instalazioen babesa bermatu ondoren (Vargas, 2001: 313). Antza denez, gudari askorentzat gerran jarraitzeak ez zuen inolako zentzurik behin Bilbo eta Bizkaia galduta. Frankistek uztailaren hasieran Balmaseda eta Somorrostro herrien okupazioekin ipar fronteko konkistaren lehenengo fasea amaitutzat jo zuten.

Okupatutako beste lekuetan bezalaxe, frankistek Bizkaiko hiriburuan sartu bezain laster makineria errepresiboa bortizki martxan jarri zuten. Lehendabizi entregatutako borrokalari guztiak, 7.000 inguru, kartzela eta kontzentrazio-eremu

4. 1937ko otsailan eginiko diskurtsoa.

«prestatueta» atxilotu zituzten<sup>5</sup>. Era berean, ordena berriak, bere estruktura guztiaren laguntzarekin —udalak, polizia, guardia zibila, parrokia-elizak, karlistak, falangistak eta herritar arruntak—, «etsai» politikoen zerrendak elaboratu zituen horiek ahalik eta azkarren neutralizatzeko asmoz. Ferrol hirian kokatuta dagoen artxibo militarreko datu-basearen arabera, Bizkaian 1937 eta 1945 urteen artean urgentziatzeko prozedura sumarisimoaren bitartez 32.100 espediente ireki ziren, alegia, probintziako populazioaren % 6 inguru jurisdikzio militarren eskuetatik pasa zen<sup>6</sup>. Adibide gisa, jakin jurisdikzio militar frankistak Bizkaian 14.500 pertsona baino gehiago auzipetu zituela Bilbo konkistatu ondorengo sei hilabeteetan<sup>7</sup>. Halaber, kontutan izan behar da Kantabrian, bereziki, eta Asturiasen ere frankistengandik ihesitako milaka euskaldun epaitu zituztela<sup>8</sup>. Atxilotutako milaka pertsona erabat desegoki atondutako esparruetan giltzaperatu zituzten.

Gerra eta gerraostean ezarritako politika errepresibo anitzen ondorioz, beraz, badakigu ehunka pertsona erailak izan zirela, milaka langilek euren lanpostua galdu zutela, beste hainbat lagunek zigor ekonomikoak pairatu zituztela, Euskadi mailan 79.000 pertsona inguru atzerriko herrialdeetara ihesi joan zirela, milaka preso altxatuen unitate militarren menpe borrokatzera behartu zituztela, autarkiak eta interbentzionismoaren eraginak gizartearen zati handi bat gabezia absolutuan murgildu zutela eta, besteak beste, Francok 1937ko ekainaren 23an sinatutako lege-dekretu batek Bizkaiko eta Gipuzkoako kontzertu ekonomikoak desegin zituela<sup>9</sup>. Bizkaian, hortaz, beste leku okupatueta gertatu bezala, gerraosteko lehenengo urteak estrategia errepresibo gogor baten adierazgarri izan ziren.

### 3. Erakartze-politikak

Horrekin guztiarekin batera, arestian esan bezala, buruzagi altxatuek «sedukzio-eta integrazio-politikak» ere diseinatu eta gauzatu zituzten erregimenaren finkatzea egonkortzeko helburuarekin. Horrela, bada, neurri errepresiboek arerio politikoen erabateko kontrola eta kolektibo frankistaren kohesioa bermatzen zuten bitartean, erakartze-politikek sistema politiko berriaren legitimazioa zuten helburu. Ikuspegi horren adibide ditugu, esaterako, Francok Roberto Cantalupo enbaxadore italiarrari abiazio faxistak Durangoko herria bonbardatu ondorengo egunetan adierazitako hitzak. Ferroleko buruzagi altxatuaren iritziz, bonbardaketen azken xedea ez zen lurraldearen konkista, herritarren «erredentzioa» baizik (Cantalupo, 1948).

5. Deustuko unibertsitatea, Escolapios eta El Carmelo komentua, Larrinagako espetxea, Upo-Mendi ur gaineko presondegia, Oruetarren txaleta, besteak beste.

6. Bizkaiaiko biztanle kopurua garai horietan 511.135 inguruan mugituko litzateke.

7. Ferroleko artxibo militarren datu-basean oinarritutako kopurua.

8. 1937 eta 1945 urteen bitartean jurisdikzio militarrek Kantabrian 37.600 eta Asturiasen 41.200 espediente ireki zituen. Ferroleko artxibo militarrek emandako gutxi gorabeherako datuak dira.

9. Nahiz eta azken urteotan burutu diren ikerketen ondorioz frankismoak Bizkaian ezarritako neurri errepresibo ezberdinen bilakaera eta ondorioak askoz ere hobeto ezagutu, oraindik ere gerraostean gertatutako garrantzi handiko hainbat kontu ezagutzeke ditugu. Izan ere, frankistek Bizkaian eraildako pertsonen kopuru zehatza, altxatuen unitate militarretan behartuta erroldatutako milaka gudari eta milizianoen historia, «estatu berri»aren kontsolidazioa sostengatu zuen frankismo soziologikoaren izaera, preso egondako milaka atxilotuen gizarteratzea, milaka erbesteratuen itzulera, langileen bataioetan lan egitera behartutakoen historia, ezarritako zigor ekonomikoaren arrasto eta inpaktua edo gizartean autarkiak eta interbentzionismoak eragindako ondorioak oraindik ikertzeke daude.

Nahikoa da altxatuek behin eta berriz errandako diskurtsoari erreparatzea propaganda- eta «erredentzio-politika»ren muinaz jabetzeko. Nahiz eta altxatuen proiektu politikoa sentsibilitate ideologiko ezberdinetako korronteez osatua izan (falangistak, katolizismo integrista, karlistak, integrismo monarkikoa, kontserbadurismo errepublikanoa, etab.), diskurtso hegemoniko berriaren izaeraren funtsa lau ideiatan laburbil daiteke: nazionalismo espainiarra —ikusker a etniko eta historizista batean oinarritua—, integrismo katolikoa, antikomunismoa eta antiliberalismoa. Militar matxinatuek herriaren borondatearen ordezkari zilegi bakartzat aurkeztu zuten beren burua. Horrenbestez, ideologia hegemoniko berriaren laudatzea eta, era berean, etsai politikoen «satanizazioa» erabatekoa izan zen.

Diskurtso berriaren hedapena, batez ere, eliza katolikoaren, komunikabideen, hezkuntza-sistemaren, sindikalismo bertikalaren eta politika sozial eta laboralaren bitartez bideratu zen (Ortiz, 2005: 169-185; Gil, 2004: 29, Calvo, 1995a: 142-143, Cabana, 2011: 102). Horretaz gain, eremu publikoa ere «estatu berri»aren parametroen arabera antolatu zen. Ez da harritzekoa, beraz, altxatuak Bilbo konkistatu bezain laster hiriaren fisionomia eta toponimia printzipio ideologiko berrien zerbitzura jarri izatea. Azken finean, monumentu berrien eraikuntzek, kaleen izen-aldaketek, «martiri»en omenez egindako oroitzapen-ekitaldiek, «garaipen» militarren egutegiaren ezarpenek, eta abarrek, altxatuen sendotasuna lortzeaz gain, galtzaileen betibiziko estigmatizazioa zuten jomuga (Juliá, 1999: 205; Font, 1999: 338; Del Arco, 2013: 66-67). Adibide esanguratsu gutxi batzuk aipatzearen, Sabino Arana eta Pablo Iglesias kaleak edo Abandoko Errepublika plaza, besteak beste, desagerrarazi zituzten heinean, Jose Antonio Primo de Rivera etorbidea, Calvo Sotelo plaza edo Zumalacárregui hiribidea Bilboko kale-izendegiko parte bilakatu ziren (Alonso, 2007: 401-404). Halaber, Bilboko komandantzia militarrek 1937ko uztailaren 21ean, espiritu nazionalistari leial, egunero goizeko bederatzietatik gaueko zortziak arte bandera «nazionala», «dagozkion ohore guztiekien», Arenalean altxatuko zela jakinarazi zuen<sup>10</sup>. Ez dugu ahaztu behar, altxatuen araudiak 1937ko apirilaren 25az geroztik hiritarrak behartzen zituela «aberriaren entseina»ren eta «ereserki eta kantu nazional»en aurrean besoa era faxistan, erromatar agurra deitu ohi izan denaren tankerara, altxatzera<sup>11</sup>.

Espainiako lurralde asko oraindik errepublikanoen esku zeuden altxatuek ipar frontea konkistatu zuten momentuan. Gerraren bilakaera nabarmen «nazional»en alde dekantatzen hasi arren, enfrentamendu militarren amaiera oraindik urrun antzematen zen. Horrenbestez, altxatuak milaka atxilotuen potentzialtasunaz jabetuta, alegia, haiengandik baliagarritasun handiena lortzeko asmoz, presoak azkar katalogatzeko sistema abian jarri zuten. Martin Pinillos sailkatze-programaren arduradun nagusiaren hitzetan, klasifikazio-prozesuaren azken helburua arerio «bihurgarri» eta «ez-bihurgarri»en arteko hautaketa aurrera eramatea zen (Rodrigo, 2003: 60). Teoria horren arabera, arerio «bihurgarriak» garrantzi handiko deliturik egotzi gabeko eta «estatu berri»aren legitimitatea onartzeko eta printzipioak errespetatzeko «ezaugarriak» betetzen zituzten pertsonak izango liriateke. Nolabait

10. *El Correo Español*, 1937ko uztailaren 22a.

11. BOE, 1937ko apirilaren 25a.

ere, sailkapen-prozesu horren helburua presoen kolektiboaren zati handi bat «erakartzea» izan zen.

Adibide gisa, Santoñan egindako sailkapen-prozesuaren emaitzak ikusiko ditugu. Jakinaenez, 1937ko abuztuaren 25ean Ajuriaguerra buruzagi jeltzideak agintari militar italiarrekin hitzartutako akordioaren ondorioz 30.000 soldadu inguru, gehienbat gudariak, aipatutako kantabriar kostako herrian errenditu ziren (De Pablo, Mees, Rodriguez, 2001: 35-36; Solé eta Villarroya, 1999: 204; Martínez Reverte, 2009: 181-182; De Meer, 1992: 534-535). Horrela, bada, Italiako enbaxadoreak 1937ko azaroaren 5ean idatzitako txosten «konfidentzial» bati erreparatuz gero, Santoñan atxilotutako soldaduen sailkapena honako hau izan zen: «11.000 pertsona aske, haien (erabateko) erregubatasuna frogatuta dagoelako. 5.400 pertsona langileen batailoietara zuzenduta. Ez dute baldintzapeko askatasuna merezi autoritate euskaldunen esanetara era boluntarioan jarri zirenek. Azkenik, 5.600 indibiduo oraindik atxilotuta epai militarren zain. Gehienak heriotza-zigorra kondena daitezke» (Olazabal, 2009, III. liburukia: 290-299).

Egia esan, «askatutako» milaka pertsonen kopuru handi bat altxatuen unitate militarretan borrokatzera behartu/kondenatu zuten. Hortaz, borrokatzeko gauza zen gizon aske oro fronte militarra bidalita, altxatuek milaka soldadu berriz hornitu zituzten euren batailoiak. Horrela, egoera paradoxiko horren ondorioz, batailoi errepublikanoetan engeiatutako milaka euskaldunek altxatuen agindupean amaitu zuten gerra, hots, irabazleen unitate militarren parte izanda. Horra hor, esaterako, muturreko adibide bat aipatzearen, Pedro Azcarraga gudarien kapitaina zenaren kasua. Izan ere, Azcarragak armada frankistako alferrez kargu izanez amaitu zuen gerra (Batzuen Artean, 2005-2006: 24).

Horretaz gain, buruzagi altxatuek eliz agintarien laguntzarekin «baketze espiritual»erako planak sustatu zituzten presoan «erregenerazioa/konbertsioa» lortzeko nahian. Elizgizonen planifikatutako doktrinamendu katolikoaren bitartez, presoaren «erredentzio» indibiduala bilatzen zen, alegia, erruki eta barkamen katolikoaren bideari jarraikiz presoaren erabateko neutralizazioa eta kontrola erdiestea. Halatan, presoaren «integrazio soziala» edo gizarteratzearen arrakasta, teoriarik behintzat, pauso jakin batzuen betetzeak baldintzatzen zuen: «bekatu»en identifikazio eta aitortpena, erredentzioaren eskaria egitea eta, azkenik, bizitza-proiektu berri baten asmo tinkoa agertzea —botere berriek homologatua noski— (Gomez eta Marco, 2011: 157; Arostegui, 2012: 34). Horregatik, markatutako «erredentzio» bide hori igaro gabe ezinezkoa litzateke, *Rendición* aldizkariaren iritziz, presoak «gizartera itzultzea/zirkulazio sozialera bueltatzea». Gainera, presoak inolako filtro edo kontrolirik gabe askatuz gero, betiere espetxeetan zabalduetako aldizkariaren ustetan, «espainiar gizarte askea kutsatzeko eta usteltzeko arrisku bizian egongo litzateke» eta, bestetik, «hainbeste sufrimendu ondoren lortutako garaipenaren porrota erabatekoa litzateke» (Gomez Bravo, 2009: 86).

1940. urtetik aurrera, karteletan eginiko doktrinatzeko-lanak konmutazio-politikaren helburuekin uztartu ziren. Hau da, erregimenak 1940. eta 1945. urteen

bitartean, zenbait arrazoi direla medio<sup>12</sup>, kondena sufritzen zeuden preso gehienak, zehazki gerra-garaiko «delituengatik» espetxeratuak izan zirenak, gradualki kartzelatik ateratzeko programa abian jarri zuen<sup>13</sup>. Garai horietan promulgatutako indultu eta baldintzapeko askatasun-neurri guztiak sekulako publizitate-kanpainaren bidez jakitera eman ziren. Altxatuek barreiatu nahi zuten ideia-aren muina argia zen: erregimenaren «miserikordiak» eta «eskuzabaltasunak» milaka presoren etxeratzea ahalbidetu duenez, «galtzaileak» eta euren familiak automatikoki «estatu berri»arekin zorretan daude. Beraz, presoak kaleratzeko politika ere buruzagi altxatuek «estatu berri»aren legitimazio-maila bai maila nazionalean bai internazionalen areagotzeko ekindako estrategia anitzen barruan kokatu behar da.

Dena dela, «erredentzio» edo «konbertsio» promesak ez ziren atxilotuta eta kondenatuta zeuden presoen kasura mugatzen; izan ere, altxatuen autoritate militar, zibil zein erlijiosoek botatako diskurtso ugari galtzaileen familian kokatzen ziren biztanleak «berreskuratzera» bideratuta zihoazen. Esandakoaren adierazgarri, besteak beste, Francok Gijonen errandako hitzak: «Jordan ibaian bainatu eta damututako pertsona orok» izango du gizarte berrian birgizarteratzeko aukera (Gil: 40)<sup>14</sup>.

Hain justu Bizkaiko gerraostean altxatuek plazaratutako diskurtso askotan arestian aipatutako arerio «berreskuragarri» eta «ez-berreskuragarri»en arteko ezberdintasunak erraz nabari daitezke. Radio Requete-k, esate baterako, 1937ko uztailean «engainuan» bizi izan ziren pertsonen «ongi etorria» eta «barkamena» eskaintzen zien, halere, era berean, azken momentuan altxatuengana gerturatutako «interesatuak» gogor kritikatzeko zituen, «Damutuak bai, ideia-trafikatzailak, ez!» lelopean<sup>15</sup>. Ildo berean kokatzen da Falangek Bizkaian gerraosteko lehen egun horietan «arerio»ekiko agertutako ikuspuntua. Falangek Bilbon antolatutako ekitaldi «patriotiko» batean adierazitako hitzen arabera, asmo «garbiak» zituzten pertsonak, behin «kulpaga-garbiketa» sakon bat gauzatu ondoren, «Espainiaren batasunaren aldeko» borrokan parte hartzeko aukera izango lukete<sup>16</sup>.

«Aerio berreskuragarri»en kontzeptuari jarraituz, jakin badakigu «integrazio» mezuak batik bat galtzaileen masa-mugimenduak «erakartzeko» zuzendu zirela. Zehatzago esanda, Bizkaian ezarritako «kaptazio» edo inguratze-politiken helburua gerra galdu zuten bi kolektibo politiko handien militanteak —jeltzaleak eta ezkertiarak— erakartzea izan zela, inoiz ez haien buruzagiak. Edonola ere, nahiz eta «kaptazio» estrategiak ideologia jakin bateko pertsonen mugatuta ez egon, agerikoa da altxatuen mezu gehienak jeltzaleak irabaztera bideratu zirela.

Nolanahi ere, ondo ezaguna da erregimen frankista sentsibilitate politiko ezberdinez osatuta zegoela. Puntu horretan, beraz, beharrezkoa da azpimarratzea

12. Politika errepresiboak markatutako helburuen erdiespena, Mundu Gerraren bilakaera, presoz gainezka zeuden kartzelak eragiten zituzten arazoak, presoen «baliagarritasuna» areagotzeko planak, besteak beste.

13. 1940ko apirilaren 25eko presidentetzaren ordena. 1940ko otsailaren 17ko eta martxoaren 12ko Armada Ministerioaren ordena.

14. 1939ko irailaren 18an Francok Gijonen emandako diskurtsoa.

15. *El Correo Español*, 1937ko uztailearen 9a.

16. *Idem*.

altxatuen familiako korrante jakin batzuek jelkideak gogor zigortzeko eskaerak egin zituztela. Esan bezala, frankisten sektore batek abertzale konfesionalak «traidore»tzat jotzen zituen «ordenaren aldeko indarren» aurka eta Fronte Popularraren alde agertu izanagatik (Jackson, 2005: 328). Ikus, adibidez, Bizkaiko Falangeko idazkari politikoak 1937ko uztaillean adierazitako hitzak:

Separatista asko gure kolorepean ari dira ezkututzen, erantzukizun larrienak langile txiroei leporatzen zaizkien bitartean. [...] Eskuak odolez zikinduta ez dituen langile oro guregana etorri dadila, gure sindikatura, horrela bada, gorroto eta erotasun marxistak eraitsitako Espainia denon artean berreraikiko dugu<sup>17</sup>.

Hala eta guztiz ere, lehenago aipatu bezalaxe, integrazio-mezu gehienak jelkideen masari zuzenduta egon ziren.

Esandakoa erakusteko, aipa ditzagun altxatuen «unibertso»tik zabaldutako ikuspuntu aipagarri batzuk. Gomá kardinalak, adibidez, Espainiako primatua eta Vatikanoren ordezkaria Francoren gobernuaren aurrean izan zenak, katoliko euskaldunak «espiritualki erreskatatu» nahi zituela adierazi zuen hamaika aldiz. Gomá-ren ustetan, euskaldun katolikoek sufritutako «oparotasun materialaren aluzinazio»en eta «arrazaz-bertuteen gehiegikeri»en eraginez «errealitateko kontuekin kontaktua guztiz galdu zuten». Dena den, kardinalak bilakaera «chauvinista» horren erantzukizuna buruzagi jelkideei egozten zien, ez ordea, haien jarraitzaile katolikoei (Andres eta Pazos, 2005: 226).

Beste alde batetik ere, kontuan izan behar dira ere Vatikanoko abertzale katolikoek eta altxatuen arteko enfrentamendu militarrekin amaitzeko abiarazitako saiakerak. Vatikanoko estatu-idazkariaren ahotan, Aulki Santuaren desira nagusia «katolikoek arteko bakea berpiztea» baino ez zen (Olazabal, 2009, I. liburukia: 206). Negoziazioen ondoz ondoko porrotek ez zuten Vatikanoren akordio-adoreak erabat deuseztatu. Ikus dezagun bestela Vatikanoko 1937ko udan monsinore Antoniutti-ri enkargatutako ardura: batetik, elizgizon «disidentek» «berreskuratzea» eta, bestetik, ahal zen neurrian katoliko euskaldunak sufritzen ari ziren errepresio-maila leuntzea (Martinez Sanchez, 2007: 39 eta 57; De Meer: 512). Constantino Bayle jesuitaren idatziak ere Pio XII.a Aita Santuak ezarritako tesien erakusgarri dira. Horrela, bada, «informazio-zentro katoliko internazionalak» 1940. urtean argitaratutako euskal eliztar «engainatu»ari buruzko liburuan honako hau adierazten zen:

Pio XII.ak eskatutakoa gure adore guztiarekin, gorroto gabe, anaitasun-espirituaren bitartez, aurrera eraman nahi dugu: «Haiengatik [euskal abertzale katolikoengatik] otoitz egin, bila itzazue, gida itzazue berriz ere Elizaren barne-birsortzera eta aberriaren altzo samurrera» (Centro de información católica internacional, 1940: 245).

Donostian kokatutako kontsulatu italiarraren idazkari nagusiak ere galtzaile katolikoekiko antzeko ikuspegia azaldu zuen. Kontsulak 1937ko irailaren 16an Salamancan zegoen Italiar enbaxadari bidalitako txosten baten arabera:

---

17. *El Correo Español*, 1937ko uztailaren 6a.



Frankista askok vasquismoa-ri dioten gorrotoa dela medio, horren jarraitzaileak gogor zigortu nahi dituzte. Hori horrela izanik ere, gerran parte hartu duten gehienak galtzaileak gizatasunez tratatzearen aldekoak dira, bereziki erreketek, Italiari dioten sinpatia zintzo eta sakonarengatik, eta, era berean, barkatutako gudari asko beren unitate militarretan errekrutatzeko esperantza dutelako (Olazabal, III. liburukia: 236-237).

Karlismoaren sektore handi batek militantzia jeltkidearen integrazioa posible ikusteaz gain, nahitaezko neurritzat jotzen zuen. Funtsean, haien ustetan, abertzale katolikoen «integrazioak» «estatu berria» finkatzea erabat indartuko zukeelako, behinik behin, euskal probintzietan (Calvo, 1995b: 32).

Antzeko iritzia plazaratu zion Rafael García Valiño militar altxatuak Bilbon errenditu ziren gudarien arduradun nagusiari Carlton Hotelean izandako topaketan: «Leialtasun osoa espero dut zuengandik. Atzo arte etsaiak ginenok, egun elkartuta lan egiteko aukera dugu gure Espainia maitearen gorespenaren alde aritzeko»<sup>18</sup>. Baita Mussolini-k ere errenditutako gudariak «berreskuratzeko» apustua agertu zuen Francori 1937ko uztailaren 6an igorritako gutun batean.

Errendizioaren ostean —zihoen italiar Duce-ak— euskaldunak zintzotasunez tratatuak izatearen esperantza dute [...]. Gainera, okertu egin diren katoliko sutsuak direnez gero, gehienak berreskuragarriak dira. Hau guztiau katoliko gisa adierazten dizut (Olazabal, 2009, II. liburukia: 304).

Esanak esan, argi utzi behar da erruki frankistak «konbentzitu»en eta «erratu»en arteko bereizketa egiten zuela. Hau da, «okertu»tzat jotako pertsonentzat ez zegoen erruki edo integrazio posiblerik, errepresio-politiken jazarpen zorrotza baizik. «Ez-berreskuragarri»tzat jotakoentzat «erredentzio»aren atea espresuki guztiz itxita mantentzen zen. Gerraostean atxilotutako buruzagiek pairatutako zigorrak esandakoaren adibide dira. Bi adibide esanguratsu batzuk aipatzearen, Julian Zugazagoitia sozialista eta Espainiako Gobernu Errepublikarraren ministro ohiaren eta Luis Alava jeltkidearen kasuak izango lirateke (Garcia eta Montero, 1980: 156; Moreno, 1999: 396-397; Barruso, 2005: 223-225; Barriola, 1978: 18-19 eta 207; Mess, 2006: 44; De Pablo, Mess, Rodriguez: 112; Martinez Rueda, 2007: 199-214). 1940ko hamarkadan Estatu frankistak, Alemaniako nazien polizia sekretuaren laguntzarekin —Gestapo—, Zugazagoitia eta Alava Frantzian atxilotu eta egun gutxira fusilatuta zituen. Fusilatze horiek frankismoak disidentzia politikoaren berrantolaketa-erakundearen jarrera gupidagabearen adierazgarri garbiak dira.

#### 4. Jarrera sozialak

Behin altxatuek gerraosteko lehenengo urteetan «estatu berri»aren egonkortasuna sendotzeko martxan jarritako estrategia nagusiak ikusita, errepresioa eta inguratze-politikak, testuinguru horretan Bizkaiko gizarte zibilean agertutako jarrera ezberdinak aztertuko ditugu. Halere, aztergai honen konplexutasunaz eta ikergaiaren egoeraz jabetuta, hemen plazaratutako ditugun emaitzen ez behin betikotasunaz ohartzeari beharrezko deritzogu. Izan ere, testu honen helburu nagusia bestelakoa izan da, alegia, historiografiak ikertu ez duen funtsezko aztergai bati buruzko lehen gerturatze akademikoa burutzea.

18. Euskal Abertzaletasunaren agiritegia, Larrazabal fondoa (katalogatu gabe).

Lehenik eta behin, falangistek Bizkaiko gizartearen jarrera sozialaren bilakaerari buruz zeukaten aburua erakutsiko dugu. Alcala de Henares herrian kokatuta dagoen Administrazioaren Artxibo Orokorrean kontsultatutako dokumentuei esker, Falangek Bizkaian zeukan ikerkuntza-zerbitzuak eginiko lanen ondorioak ikusiko ditugu. Esan beharra dago aipatutako ikerkuntza-zerbitzu horrek argitaratutako emaitzak guztiz pribatuak zirela; horrela, bada, txosten horiek gordetzen duten informazioak ez du erregimenak argitaratutako buletinaren ohiko tonu publizitario eta triunfanterik. Zalantza barik, aipatutako pribatutasun horrek dokumentuek agertzen duten informazioaren baliotasuna erabat areagotzen du.

Konsultatuko informazioa erakutsi baino lehen, Falangeko ikerkuntza- eta informazio-zerbitzuari buruzko zertzelada txiki batzuk aipatuko ditugu. Falangek Espainiako probintzia guztietan abian jarritako informazio- eta ikerketa-ordezkaritzen eginkizun nagusia probintzian gertatutako gertaera eta zurrumuru nabarienen kontrol zehatza egitea zen, ondoren jasotako informazio guztia alderdiaren organo zentraletara bidali ahal izateko. Falangeren zerbitzu horrek pertsona «susmagarriak» atxilotzeko gaitasunik ez zuenez gero, haren lanak batik bat espioitza-jardueretara eta txostenak osatzera bideratu ziren. Lurralde-ordezkaritza bakoitzak informazioa kolaboratzaileez osatutako sareen bitartez lortzen zuen.

Gure kasuari dagokionez, 1939. urtean Bizkaiko Delegazio Probintzialaren pertsonala honako hau zen: bederatzi agente «eraginkor», hiru laguntzaile, bulego-laguntzaile bat eta 131 kolaboratzaile<sup>19</sup>. Bilboko prentsa frankistaren arabera, kolaboratzaileek, «zazpi barrutitan sakabanatuta», «mugimenduaren aurkako pertsona susmagarrien» zaintza- eta kontrol-lanetan dihardute «eraginkor» (Vargas, 2007: 409). Kolaboratzaileen zuhertasunaren eta prestasunaren mailak erabat baldintzatzen zuen jasotako informazioaren «kalitatea». Izan ere, kolaboratzaile orok «sozializazio popularra» mugitzen zen tokietan integratzeko kontsignak jaso zituen (Parejo, 2011: 149-152). Laburbiltzeko esan daiteke, beraz, Falangeren txostenek «arerio» politikoen kontrola eta atxilotetak ahalbidetzeaz gain, «estatu berri»ari ezarritako politiken eta diskurtsoen eraginkortasun soziala kalibratzeko aukera paregabea eskaintzen zutela.

Esandakoaren lekuko, 1942ko otsailaren 28an altxatuen garaipen militarren ondoren Bizkaiko gizartearen agertutako portaera nagusien bilakaerari buruz eginiko txosten informatiboa da.

Elementu separatista eta ezkertiarren artean hoztasun- eta etsipen-jarrerak izan ziren nagusi Bilboko liberazioa gertatu ondorengo bi urteetan, batez ere, gertaeren larritasunak eta errepresioa pairatzeko beldurrak eraginda. Errepresioa saihesteko aukerak handitu diren heinean, arerio politikoen artean jarrera-aldaketa nabari da, hots, lozorrotik jada esnatzen hasita daude. Egun, mugimenduko buruzagi eta hierarkiaren aurkako kritikak egin, gezurren asmaketa eta hedapena sustatu, barne-politikari buruzko zurrumuru negatiboak adierazi, demokrazien kausen aldeko begikotasuna agertu, talde txikietan biltzen hasiak dira eta erbestetik, espetxetik edo batailoietatik itzulitakoak eraginkor babesten dituzte, besteak beste, lanpostuak lehentasunez eskainiz<sup>20</sup>.

19. Administrazioaren Artxibo Orokorra. Presidentetza Funtsa. 52/14112. 1939.

20. Administrazioaren Artxibo Orokorra. Presidentetza Funtsa. 52/14123. 1942ko otsailaren 28a.

Illo berean kokatzen dira René Casterain Bilboko kontsul frantsesak bizkaitarren jarrera sozialei buruz egindako hausnarketak. Casterain-en iritziz, 1937ko ekainaren eta 1939ko martxoaren artean Bizkaiko gizartearen gehiengoak botere berriarekiko jarrera zuhurra eta diskretua erakutsi zuen (Calvo, 1995a: 155-156). Ikus dezagun, ere, altxatuen aldetik Ernesto Jimenez Caballero idazleak 1937ko uztailean Bilboko prentsan sinatutako artikulua batean idatzitakoa:

Hortik barrena, gainerako Espainian, Bilbo hotz eta zakar agertu zela esaten da. Ni Bilbo hartu zen egunean bertan nintzen eta baieztatu dezaket hiri honetan ez zegoela kontrako girorik. Zalantza-giroa baitzen nagusi. Zer gertatuko zen zain zeuden. Herria pozoinduta zegoen, hots, engainatuta<sup>21</sup>.

Kontrako ikuspegi batetik, Agirre lehendakariak Bilbo hiriak altxatuei harrera «hotza» eta «arrotza» eskaini ziela mantendu zuen (Azaña, 1978: 159). Egia esan, kontsultatu ditugun iturri denek —dela bando «nazionalakoa», errepublikanakoa edo dela internazionala— antzeko ideia nabarmentzen dute: Bizkaiko, nagusiki, Bilboko gizarteak «estatu berriarekiko» nolabaiteko «hoztasuna» edo «atxikimendu falta» agertu zuela.

Bilboko jendeak altxatuekiko agertutako hoztasun eta apatia orokorraren zergatiak, bederen, Falangeko txosten pribatuen ustez, «elementu “puruen/garbien” presentziaren eskasia eta bilbotar askoren erresistentzia pasiboak» eragindako trabak eta eragozpenak izango lirateke<sup>22</sup>. Dena dela, dela etsaitasun pasiboa dela zalantza-giroa, kontsultatutako iturriek gerraosteko lehenengo urteetako gizartearen gehiengoaren jarrerak, nagusiki, beldurrak eta zuhurtziak baldintzatu zituztela iradokitzen dute. Errepresioa pairatzeko beldurrak, batez ere gerraosteko lehenengo urteetan, logikoki, disidentzia edo erresistentzia aktibo ororen sorrera erabat zailtzen zuen. Dirudenez, terrore-egoera horren ondorioz, galtzaileen gehiengoaren jarrerak bizirik irautera, hots, egokitzapen-portaeretara mugatu ziren. Testuinguru horretan, beraz, ez da harriztekoa gizarte galtzailean agertutako portaera sozial nagusien izaera beldurtia: «Saiheste pertsonala, barne-erbestealdia, koldarkeria moralak, elkartasun-loturen haustura, axolagabetasun kalkulatu edo baita kolaborazioa ere» (Prada, 2010: 414). Joseba Elosegi jeltxak, adibidez, Santoñako kartzelatik Bilbora eginiko lekualdatzeari buruz idatzitako oroitzapenak esandakoaren lekuko dira:

Jende bilbotarra gutaz errukitzen zen. Gure lagunak, denak euskaldunak, ondo ezagutzen gintuzten. Hala ere, ez ziren gure inguruan bildu, ez zuten ezta hitz egiteko saiakerarik egin ere. Gizon eta emakume haiek gure ondotik behin eta berriz pasatzen ziren, inoiz gelditu gabe, hitzik esan gabe, agurrik egiten ere ausartu gabe. Haien esku bilduek maitasuna eta begikotasuna erakusten zuten bezalaxe, gainerako keinu guztiek larritasuna eta beldurra adierazten zuten. Egia esan, ikusten genituen aurpegiak errepresioak eragindako terrorearen erakusgarri ziren, hots, zigorrak pairatzearen beldurrak erabat paralizatzen zituen (Elosegi, 1977: 224).

Nolanahi ere, lehen aipatutako hariari helduz, badirudi gerraosteko lehenengo bi urteak pasatu ahala galtzaileen sektore batzuen jarrerak progresiboki beldurretik itxaropenera igarotzen hasi zirela, batez ere, Bigarren Mundu Gerraren eztrandak

21. *El Correo Español*, 1937ko uztailearen 20a.

22. Administrazioaren Artxibo Orokorra. Presidentetza Funtse. 52/14116. 1938ko maiatza.

sortutako espektatibak eraginda. «Egun, gerrako berriek gure etsaien artean euforia eragiten dute. Izan ere, herrialde demokratikoen garaipen militarrek morala erabat areagotzea lortzen dute. Ezin dute disimulatu, ireki eta irribarretsu agertzen dira»<sup>23</sup>. Falangeko espioitza-zerbitzuak jarrera disidente apalen sorrera berriak detektatu zituen, esate baterako, Radio Pirineos irratia entzutea, tertulia «gorri» eta «separatisten» areagotzea edo talde abertzaleek antolatutako mendi-topaketak<sup>24</sup>.

Erbestetik itzultako «disidente»ek jasotzen zituzten ongiatorri eta laguntzek erabat kezkatzen eta harritzen zituzten falangistak. «Elementu gorriek eta separatistek atzerritik bueltan etortzen jarraitzen dute. Kasu gutxi batzuk izan ezik, gehienak joan baino sektarioagoak itzultzen dira. Gainera, egun batzuetan, hemen daudenentzako orakulu bilakatzen dira»<sup>25</sup>. Falangeren iritziz, atzerritik etorritakoak lasai asko elkartzen ziren bertan gelditutako alderdikideekin. Buruzagi «disidente»en etorrerak kezkatzen zituen nagusiki. «Bigarren kategoriako buruzagitxo hauexek hemen sakabanatuta eta gidari ideologiko gabe dauden pertsonak elkartu ditzakete»<sup>26</sup>. Izan ere, falangisten ikuspuntutik, erabat ulertezina baitzen «bigarren kategoriako buruzagitxo disidenteak» —«zinegotziak, kazetariak, idazleak, taldeko nagusiak, etab.»—, behin egotzitako zigorra pairatu ondoren, era normal batean lehengo bizi-estilora itzultzea. Horrela, bada, ikerkuntza- eta informazio-zerbitzuen txostenetan «elementu separatista-gorrien» jarrera itxaropentsuen areagotzearen «arazoa» konpontzeko eskakizunak behin eta berriz ageri dira<sup>27</sup>.

Falangeko eskakizunek izan zuten inpaktu erreala ezagutzerik ez dugu, hala ere, dirudienez izan zuten nolabaiteko oihartzuna, behintzat 40ko hamarkadaren hasieran izandako sarekadei erreparatuta. 1942ko urtarrilean Barakaldoko poliziak zioen 20 lagun «gorri-separatista» baino gehiago, gehienak baldintzazko askatasunean, atxilotuak izan zirela Bilbo eta Barakaldoko hirietan bilera klandestinoetan parte hartu izanagatik<sup>28</sup>. Hilabete batzuk geroago, apirilean, beste «elementu gorri-separatista» batzuk ere atxilotuak izan ziren, teoriarik, era antolatu batean «beren asuntuoetz», hots, aliatuek gerran lortutako garaipenez, hitz egiten ustekabean harrapatu zituztelako<sup>29</sup>.

Dena dela, falangistek bazekiten «estatu berriak» ezingo zukeela Bizkaiko gizartearen onespina eta atxikimendua erdietsi, egoera ekonomikoa eta soziala berean mantenduz gero. Izan ere, Jose Antonio Primo de Rivera-ren jarraitzaileen ustetan, behar-beharrezko produktuen faltak «kaptazio-politiken» potentzialtasuna erabat indargabetzen zuen.

Egiten ditugun promesak ez datoz errealitate sozialarekin bat. Gure promesak zalantzan jartzen dituzte eta horrek markatutako helburuak erdietsiko ez ditugulako sentsazioa hedatzen du. Jendearen oinarritzko kezka bizirautea da. Baldintza

---

23. Administrazioaren Artxibo Orokorra. Presidentetza Funtsa. 52/14123, 1942ko maiatzaren 30a.

24. *Ibidem*, 1942ko maiatzaren 15a. 1942ko otsailaren 28a. 1942ko maiatzaren 30a.

25. *Ibidem*, 1942ko maiatzaren 30a.

26. *Ibidem*, 1942ko martxoaren 15a.

27. *Ibidem*, 1942ko otsailaren 28a.

28. *Ibidem*, 1942ko urtarrilaren 2a.

29. *Ibidem*, 1942ko apirilaren 30a.

hauetan benetan zaila suertatzen da populazioarengan ilusioa piztea. Urdailarekin eta urdailarentzat soilik pentsatzen da<sup>30</sup>.

Ikus daitekeenez, gerraosteko lehenengo urteak, bereziki, muturreko gosearen eta erabateko urritasun materialaren erakusgarri izan ziren. 1942ko beste buletin batek egoera are gordinago aurkezten du: «Atsekabea da nagusi, bereziki, elikagai-hornidurako arazoak areagotu egin direlako. Bilbon eta probintzia osoan jasaten ari diren egoera larriak ondorio tamalgarriak sortzen ditu. Gaixotasunak eta heriotzak areagotu egin dira. Egoera soziala jendearen kezka nagusi bilakatu da»<sup>31</sup>.

Ekarpen hauek kontuan harturik, logikoa dirudi promestutako konpromisoak ez betetzean, «estatu berri»aren sinesgarritasuna eta erakargarritasun-estrategiak erabat zapuztuta gelditzea. Ideia hori da, behintzat, kontsultatutako dokumentu pribatuak behin eta berriz adierazten dutena. «Bilboko zenbait zinema-aretotan Espainiako esne, olio eta azukrearen industriak lortutako produkzio-maila altuei buruzko film dokumentalak ematen ari dira. Entzuleek mezu horiek txistuz, barrez eta txistek eginez jasotzen dituzte»<sup>32</sup>. Esan daiteke, beraz, erregimenaren publizistek diseinatutako ekimen horiek sistema politiko eta ekonomiko berriaren laudamena lortu beharrean kontrakoa erdiesten zutela, alegia, jendeak egoera berriarekiko zuen frustrazio-maila areagotzea.

Nolanahi ere, erregimenak Bizkaiko gerraostean lortutako atxikimendu-maila eskasak ez du esan nahi, ezta inondik inora ere ez, «estatu berriak» ez zuenik populazio bizkaitarraren zati gogoangarri baten atxikipena edo onespen esplizitua lortu. Izan ere, kontsultatutako iturrietan argi aurki daitezke integrazio-, kolaborazio- eta atxikimendu-portaera ugari. Egia esan, begi-bistakoa da gerra zibilak Bizkaian, Espainiako beste lekuetan bezalaxe, galtzaileak gain irabazleak ere izan zituela. Oinarrizkoa eta nabaria den datu hori sarri, dena delakoagatik, alboratu egiten da.

Esandakoaren adibide, erregimenak probintzian antolatutako ekitaldi askok bildutako jendetza izango litzateke<sup>33</sup>. Hala ere, azpimarratzeko da arrakasta gehien izan zuten ekitaldiak karlisten esku egon zirela. Hain justu karlistak baitziren Bizkaian frankismoaren adierazgarri nagusia, errotuena bederen. Horretaz gain, jakina da erregimen frankistak jendearen laguntza lortzeko kanpainak burutu zituela. Horren harira Barakaldoko Udalak 1937ko uztailaren 21ean Bilboko prentsan argitaratutako mezua ikusi besterik ez dago:

Epaitegi militarrek agintzen duena konplutuz, hiru egunen buruan herri honetan agintaldi gorri-separatistan gertatutako delituen berri izanez gero (erailketak, eliza edo beste eraikin batzuei su eman izana, harrapaketak, lapurretak, etab.), jakindakoak ala norberak pairatua, komunika ditzala idatziz, ahalik eta datu gehien erantsiz (gertakariaren laburpena, epea, egileak, susmoak, etab.), udaletxe honetako bulegoetan<sup>34</sup>.

---

30. *Ibidem*, 1942ko martxoaren 15a.

31. *Ibidem*, 1942ko otsailaren 28a.

32. *Ibidem*, 1942ko urtarrilaren 21a.

33. *Ibidem*, 1942ko apirilaren 15a eta 1942ko otsailaren 28a.

34. *El Correo Español*, 1937ko uztailaren 21a.

Altxatuek jakin bazekiten pertsona zibilen laguntzak ikaragarritzko aukerak eskaintzen zizkiela. «Arerio» politikoak atxilotzeko eta zigortzeko informazioa lortzeko bide paregabea izateaz gain, populazio zibilaren inplikazio eta atxikipen erreala kalibratzeko modua ere bilakatu zen (Gomez eta Marco: 179). Artxibo militarrek gordetzen dituzten espediente judizialak kolaborazio sozialak izandako protagonismo altuaren erakusgarri dira. Hala nola Peter Anderson-ek eginiko ikerketa kontuan hartuta, Bilboko epaitegi militarrek irekitako auzipetzeen % 52, errenditutako soldaduek kanpo utzita, salaketa indibidualei esker hasi ziren (Anderson eta Del Arco, 2011: 132). Egia esan, espediente militarrei erreparatuz gero, argi nabari daiteke salaketek errepresioan izan zuten pisu nabaria. Ez ditugu aurkitutako salaketa guztiak banan-banan erakutsiko, ikaragarri astuna egingo bailitzaiguke, baina bai esanguratsuenak. Adibide gisa, bada, «testigu» batek 1937ko uztailaren 7an Bilboko zazpigarren auzitegi militarrean jarritako salaketa aurkeztuko dugu:

Adierazpena eta salaketa borondatez ipintzera datorrela aditzera eman du, salatzen dituen gertakariak Mugimendu Nazionalaren aurkakoak eta elementu gorri-separatisten aldekoak direlako. Jose Martinez, udaltzainen kaboa, eta Villaverde; Aurelio Lopez, Albino Ruiz eta Bonifacio Luis Ares, guardiak identifikatzen ditu. Esaldi iraingarriak bota zituzten: «eskuindar guardiak parapeto gisa jarriko ditugu faxistak Arenalera heltzen badira», «eskuindarrak beren familiak agurtzen has daitezke», «poztasunez jarduten ziren Santo Domingo eta Castrejana aldeko tiroak entzutean, eskuindarrak akabatzeko zirelakoan»<sup>35</sup>.

Jakin ikusitako salaketa horrek, gutxienez, Albino Ruiz-en fusilatzean eta Bonifacio Luis-en espetxeratzean eragina izan zuela. Labur esanda, kontsultatutako salaketa guztiek ezaugarri berdintsuak izaten dituzte. Gehienbat, portaera «maltzurak» baita «mugimendu nazionalarekiko» agertutako «etsaitasun-jarrera» oro ere salatu ohi ziren.

Salaketen ikerketak sarri salatzaileek izandako motibazio nagusien jatorria antzemateko parada eskaintzen digu. Hala ere, kontuan eduki behar da ia ezinezkoa dela salaketa bakoitzaren atzean zegoen zergati primitiboa aurkitzea, are gehiago, horiek, gure kasuan bezalaxe, indarkeria-testuinguru batean kokatuta baldin badaude. Dena dela, orain arte gai honi buruz argitaratuko ikerketek orokorrean zazpi eragile nagusi bereizten dituzte: Errepublika garaian pairatutako irain pertsonal edo familiarrak, «ordena berriarekiko» ezin hautsizko konpromiso bat agertzearen nahia, behartze psikologikoa eta fisikoa, lehia pertsonalak, biziraute-sena, atxikimendu sutua eta, azkenik, beldurra eta koldarkeria moralak (Casanova, 2008: 31; Cenarro, 2002: 80; Mir, 1999: 138). Gure ikerketak, batez ere, Errepublika garaian bizi izandako esperientzia traumatikoek eta izaera pertsonaleko mendeku-grinek eragindako salaketak jaso ditu.

Paradoxikoki, buruzagi judizial militarrek gerraosteko lehenengo hilabeteak aurrera joan ahala salaketen bidez jasotako zenbait informazioren sinesgarritasuna zalantzan jartzen hasi ziren. Izan ere, arestian aipatu bezala, salaketa askoren eragile bakarra mendekua pertsonala baitzen. Horren ondorioz, auditoreek mendeku pertsonal itxurako zenbait salaketa atzera bota zituzten<sup>36</sup>. Edozelan ere, salaketa

35. Ferroleko artxibo militarra. 1271 Kaxa. Santander.

36. Ferroleko artxibo militarra. Pedro de las Heras Ansejo.

baten batzuen egitasuna zalantzan jartzeak ez du esan nahi jasotako salaketa guztiak sakonki aztertuak izan zirenik, ezta gutxiagorik ere. Auditore militarrek aurrez aztertu gabeko denuntzia ugari froga irmo gisa jaso zituzten. Azkenik, salaketen analisi labur honekin bukatu baino lehen, Felipe Acedo Colunga fiskal nagusiak 1939an idatzitako hausnarketak plazaratu nahi ditugu. Izan ere, Acedo Colunga-ren ustetan, erregimenak Bizkaiko gizarte zibilaren kolaborazioa lortu ahal izateko ahaleginek ez zuten beste probintzia batzuetan izandako arrakasta berbera erdietsi (Espinosa, 1999: 36). Hau da, nahiz eta salaketek Bizkaian «disidente»en auzipetzean izan zuten eragin nabaria frogatuta egon, dirudienez, horien presentzia beste lekuetan baino askoz apalagoa izan zen.

Hala ere, atxikimendu-, kolaborazio- edo onespren-jarrerak ez ziren bakarrik irabazleen kolektibora mugatu. Izan ere, nahiz eta erregimenak bultzatutako inguratze-politikak galtzaileengan izandako inpaktua apala izan, galtzaileen bandoan kokatutako pertsona dezentek indibidualki erregimen berrian «integratzeko» hautua hartu zuten. 1938ko maiatzeko Falangeko txosten batek karlistek jeltkideen kolektiboko zenbait pertsona «ordena berrian» integratzeko egiten zituzten iruzurrak salatzen zituen. Izan ere, falangisten aburuz, Comunion Tradicionalistak jeltkideen artean alderdiko zenbait txartel faltsu banatu zituen<sup>37</sup>. Dirudienez, harreman personalak zirela medio, abertzale konfesional batzuek karlisten laguntzaren bitartez erregimen berrian «integratzea» eta, era berean, errepresioaren zigor bortitzenak saihestea lortu zuten. Karlistek ahalbidetutako «bideez» gain, betiere Falangeko txostenen arabera, beste abertzale konfesional batzuek «eskumatarrak deitu ohi diren» pertsonen babesaz eta bermeaz baliatuz, «lanbide liberaletan», «kleroa» bai eta «Falangeko alderdian» ere barneratzea erdietsi zuten<sup>38</sup>.

Gerraosteko garaiak bizi zituztenen artean ere antzeko ikuspegiak aurkitu ditugu. Manuel Chiapuso militante anarkistak, adibidez, bere oroitzapenetan gudari batzuek Bilbo konkistatu aurreko momentuetan izandako jokabidea kritikatzan du.

Ertzañiak Bihotz Sakratuaren monumentua alegiazko etsaien kontra babesten zuen. Sektore industrialak ere gudariaren zaintzapean zeuden. Poliziaren gizonen patruilan ziharduten hiria altxatuei noiz entregatuko zain. Horietako batzuek jada erreketean txapel gorria jantzita zeramaten (Chiapuso, 1978: 217).

Francisco Cossio kazetari frankistak ere antzeko panorama aurkezten digu Bilbo konkistatu ondorengo egunetan gertatutako pasarte honen bitartez:

Adineko gizon batek txapel gorria estreinatu berri duen karlista alai bat aurretik ikusi eta honako hau esaten die ondoko lagunei: «A ze lotsagabetasuna; nazionalista atzo arte, eta gaur txapel gorria buruan eta zinta nazionala papar-hegalean» (Cossio, 1937: 156-157).

Arabako eta Gipuzkoako gerraostea ikertu duten lanek ere ikusitako «jarrera-aldaketa» horien berri eman dute. Gipuzkoan, adibidez, gerraosteko zinegotzien % 6,19ren jatorri politikoa jeltzalea zen, are gehiago, abertzale jatorriko zinegotzien presentzia eskuin indar tradizional espainolistena (Acción Popular, CEDA eta

37. Administrazioaren Artxibo Orokorra. Presidentetza Funtsa. 52/14116. 1938ko maiatza.

38. *Idem*.

monarkikoak) baino handiagoa izan omen zen (Barruso, 1999: 155-157). Araban, berriz, 1936 eta 1948 urteen bitartean EAJko militante edota jarraitzaile izandako berrogeita hemezortzi pertsonak, gutxienez, ordezkaritza politikoko karguak izan zituzten (Gomez Calvo, 2014: 311).

Jakin badakigu integrazio-kasu bakoitzak detektatzeko eta, are gehiago, frogatzeko benetan zailak diren logika eta zergati propio jakin batzuk izan zituela. Halere, gure ustetan badaude zenbait kausa komun jelkideen «integrazio-hautu»ak ulertzeko baliagarriak izan daitezkeenak, hots, egoera berrira moldatzeko desira biziak eta tradizionalistekin/karlistekin zeukaten lotura ideologiko, kultural eta familiar sendoa. Alabaina, kontuan eduki behar da 1931ko ekaineko hauteskundeetan, estatu-kolpea gertatu baino bost urte lehenago, EAJ eta Comunión Tradicionalista koalizioan aurkeztu zirela. Gauzak horrela ez da harriztekoa, 1939ko apirilaren 2an EAJko Euzkadi Buru Batzarrak (EBB) Frantziako Meudon herrian izandako bileran onartutako estrategia politiko berriaren norabidea. Alderdiak «Euzkadi penintsularra»ren bizitzan politikoki eragin ahal izateko», «zeharkako ibilbide»en aldeko apustua egiten zuen, alegia, «karlisten elementu euskaldunen bitartez» influentzia eragitea (De Pablo, Mess, Rodriguez: 77).

Alderdi jeltzaleko zenbait pertsonaia garrantzitsuk ere «integrazio-politika»ren norabidearen aldeko apustua egin zuten. Aipa ditzagun, adibidez, Jesus Maria Leizaolak eta Telesforo Monzonek gerraostean agertutako ikuspuntuak. Leizaolaren ustetan «Euskadiren interesak» babestu ahal izateko ezinbestekoa zen erregimen frankistaren erakundeetan infiltratzea. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Kultura sailburuak, «erregimenarekiko leialtasun-itxurak mantenduz», «buruzagi politiko, militar edota burokrata» orengan presioa eta influentzia eragitearen aldeko ikuspuntua azaldu zuen (De Pablo, Mess, Rodriguez: 79). Kongresuan EAJko diputatu eta Eusko Jaurlaritzako sailburu izan zen Telesforo Monzonek ere erbestetik antzeko ikuspegia defendatu zuen. Lehertzeko zegoen gerra internazionalaren atarian, alderdikideak «Euzkadira bueltatzeko» eta «karlista-erreketeenganako hurbilketa» estrategiko baten bitartez «herriaren batasun»aren eta «arrazaren babes»aren mesedeetan borrokatzera animatu zituen (De Pablo, Mess, Rodriguez: 106). Badirudi, Jose Antonio Agirre lehendakariak ez zituela gerturatzeko-politika horiek ontzat eman. Dena den, jelkide jakin batzuek lehendakariaren aginduei muzin eginez, «estatu berria» onartzeaz gain, haren egitura politiko eta sozialean integratzeko saiakerak egin zituzten.

Nolanahi ere, arestian esan bezala, «integrazio-kasuak» ez ziren eskusiboki ideologia jelkideko jarraitzaileen aldera mugatu, ezta inondik ere. Izan ere, alderdi eta sindikatu ezkertiarreko jatorria zutenen zenbait kasu ere aurkitu ditugu. Angel Balsas komunistaren espediente judiziala, adibidez, esandakoaren lekuko da. Heriotza-zigorra kondonatu zuten, besteak beste, «nazional»en bandora pasatako «miliziano gorriak» salatu izanagatik<sup>39</sup>. Jose Atucha jarraitzaile «nazionalista»ri ere tankerako «delitua» leporatu zioten. Epaiak Atuchak «nazionalen lerroetara pasatako 14 milizianoren gurasoen atxiloketan parte hartu» zuela zioen<sup>40</sup>. Azkenean,

---

39. Ferroleko artxibo militarra. Ángel Balsas Benedicto.

40. Ferroleko artxibo militarra. José Atucha Cortázar.



bai Balsas bai Atucha fusilatua izan ziren. Hemen jorratutako kasuak jokabide individualen aniztasun- eta konplexutasun-mailaren erakusle garbiak dira.

Bizkaiko gerraostean izandako jarrera sozial anitzen analisiaren ildoari jarraikiz, enpresa eta erakunde pribatuek botere berriarekiko agertutako portaerak jorratuko ditugu orain. Erakunde pribatuek publikoki agertutako jarrera guztiek botere berriarekiko atxikimendu absolutua adierazi zuten. Horrela, bada, salbuespenak salbuespen —nahiz eta aurkitu ez—, enpresa eta erakunde bizkaitarrek erregimen diktatorialaren babesa eta onespena bilatu zuten. Izan ere, nabaria da erakunde pribatuen biziraupena eta bideragarritasuna, hein handi batean behintzat, botere berriarekin izandako harreman-mailak baldintzatzen zuela. Sumario judizialak, esate baterako, enpresen atxikimenduak aurkitzeko iturri apartak dira. Ikus, adibidez, Gruber y Cia enpresa bilbotarrak bere langile auzipetuak defendatzeko abalek agurrean zeramatzaten adierazpen deigarriak: «Gora Espainia! Gora Franco! Heil Hitler!»<sup>41</sup>.

Altos Hornos enpresaren aktak ere aipatutako atxikimenduaren adierazgarri bikainak dira. 1937ko uztailaren 16an labe garaien batzordeko kideek «Bilbo askatu» ondoren izandako lehenengo bileran «armada nazionalak» eta Franco jeneralak «liberazioan» izandako paperari buruzko gorespen-hitz kartsuak adierazi zituzten. Era berean, Franco jeneralari beren «atxikimendu apurtezina» eskaini zioten<sup>42</sup>. Horretaz gain, gerraosteko lehenengo urteetako aktak Altos Hornos-ek «mugimendu nazionalaren alde» burututako ekimen eta proiektu ugarien erakusgarri apartak dira: hildako «nazionalen aldeko» monumentuen eraikuntzak ordaindu, frankismoa osatzen zuten korronte ideologiko ezberdinen proiektuei diru-laguntzak eman, «herri liberatu»ei dohainak eskaini, gerraontziak ekoizteko borondatea helarazi, soldadu zaurituen artean opariak banatu, etab<sup>43</sup>. Antza denez, gainerako Bizkaiko enpresari nagusiek ere botere berriarekiko antzeko kolaborazio-jarrerak izan zituzten (Garmendia y Gonzalez, 1988: 88; Garmendia y Gonzalez, 1993: 182).

Falangeko ikerketa- eta informazio-iturriek jasotzen duten informazioaren arabera, Bilboko prentsaren atxikimendua ere ez zen makala izan. Dirudienez, Bilboko prentsa erregimenak zabaldu nahi zituen mezuen eta doktrinaren transmisore leiala izan zen.

Bilboko prentsaren antolakuntza, langileen espezializazio-maila eta kudeaketa ekonomikoa —Falangeko informatzaileen ahotan— eredugarria da. Aldi berean, erregimenarekiko agertzen duen leialtasuna erabatekoa da. Argitaratutako artikuluetan ez dira gibel-asmoko esaldirik aurkitzen. Ez dute aipamen maltzurrik egiten. Kolaborazio leialaren erakusgarri dira. Inoiz ez dute ez kexarik eta zigorrik jaso, ezta hierarkiaren abisurik ere<sup>44</sup>.

Nonbait, Bizkaiko prentsaren fidelotasunak zentsuraren zereginak erabat erraztu zituen, horrek ez baitzien-eta eman zentsuratzaileei lan egiteko arrazoi nahikorik.

---

41. Ferroleko artxibo militarra. Ramón Lara Mazón.

42. Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa. Altos Hornos-eko aktak. AHV 0078: 205.

43. Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegi Historikoa. AHV 0079, AHV 0142, AHV 0143.

44. Administrazioaren Artxibo Orokorra. Presidentetza Funtsa. 52/14123. 1942ko martxoaren 15a.

## 5. Ondorioak

Laburbilduz, esan genezake gerraosteko lehenengo urteetan galtzaileei dagokienez, behinik behin, errepresioa eta txirotasuna izan zirela bereziki bizkaitarren jokabideak baldintzatu zituzten faktore nagusiak. Zehatzago esanda, kontsultatu ditugun iturri guztietan bando galtzaileko pertsonen pairatutako beldurra eta gosea erraz asko antzeman daiteke. Horrela, bada, gerraondoko lehenbiziko urteetan galtzaileen kolektiboaren gehiengoaren portaera sozialak onespasiboaren eta errefus isilaren artean kokatu ziren, esan bezala, testuinguru berrira azkar egokitzekeo desira/beharrak eraginda. Erresistentzia- edo desobedientzia-jarreraren presentziarik ezak, beraz, logikoki erregimen frankistaren finkatzea erabat samurtu zuen. Izan ere, altxatuek inplementatutako politika errepresibo bortitzek (erailketa «legalak edota «paralegalak», kartzela-zigorak, zigor ekonomikoak, langileen «depurazioak», erbesteratuak, langileen batailoiak, etab.) disidentzia politikoaren erresistentzia-gaitasuna guztiz indargabetzea lortu zuten. Edonola ere, gerraosteko urteak aurrera joan ahala, bai gerrako presoen irteera eta erbesteratuen itzulera progresiboaren ondorioz bai eta aliatuek Bigarren Mundu Gerran erdietsitako garaipen militarren ondorioz, jarrera ihardukitzaileen presentzia pixkanaka areagotzen joan zen, hori bai, era guztiz apalean. Izan ere, beldurraren pisuaren lausotzeak eta aldaketa politiko baten itxaropenak galtzaileen autoestimua berpiztea ahalbidetu zuten. Hala ere, aipatutako berpizteak ez zuen inolako erresistentzia-aktibitate sendorik eragin, horiek neurri handi batean eremu pribatura mugatu baitziren. Horrela, bada, gizarte galtzailearen gehiengoaren jokabideak, askotarikoak eta aldagarriak, gerraosteko lehenengo urteetan, bereziki, biziraupena bermatuko zuen adaptazioa lortzeko nahian «zona grisa» deitu ohi den esparru zabalean kokatu ziren.

Aldi berean, aipatutako jarrerez gain, «estatu berriak» Bizkaian atxikimendu-jarrera ugari, izan egiazkoak izan itxurazkoak, erdietsi zituen. Atxikimendu horren adibide esanguratsu batzuk aipatzearen, espediente judizialean ageri diren salaketa pertsonalak, «Mugimendu Nazional»eko indarrek probintzian antolatutako ekitaldiek bildutako jendetza edota Bizkaiko enpresa handien batzordeek altxatuei eskainitako laguntasuna eta babesa nabarmenduko nituzke. Horretaz guztiaz gain, nahiz eta altxatuek ezarritako «kaptazio-politikek» arrakasta eskasa izan, azpimarratzekoak dira galtzaileen bandoan kokatutako zenbait pertsonak «erregimen berrian» integratzeko eginiko saiakerak. Dokumentatu ditugun integrazio-kasu gehienak, ez denak, ideologia jeltzaleko pertsonen burutu zituzten. Horren harira esan dezakegu, integrazio-kasuak, hein handi batean, jeltzaleek altxatuen sektore batzuekin, nagusiki karlistekin, zituzten harreman familiar, kultural eta politikoek eta alderdi jeltzaleko buruzagi batzuek gerraostean agertutako ikuspegi «integratzaile»ek ahalbidetu zituztela. Dena den, gaizki ulerturik egon ez dadin, argi utzi behar da jarraitzaile jeltzale gehienak, bando galtzailea osatzen zuten gainerako ideologiako jarraitzaile gehienak bezalaxe, diktadura frankistak eragindako oinazearen biktima besterik ez zirela izan.

## Bibliografía

- Alonso, J.J. (2007): «La memoria de la Guerra Civil en el espacio urbano de Bilbao», *Bidebarrieta*, **18**, 399-439.
- Anderson, P. eta Del Arco, M.A. (2011): «Construyendo la dictadura y castigando a sus enemigos. Represión y apoyos sociales del franquismo (1936-1951)», *Historia Social*, **71**, 125-141.
- Andres, J. eta Pazos, A. (2005): *Archivo Gomá. Documentos de la Guerra Civil*, 6. liburukia, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madril.
- Arostegui, J. (2012): «Coerción, violencia, exclusión. La dictadura de Franco como sistema represivo», in J. Arostegui, *Franco: La represión como sistema*, Flor del viento ediciones, Bartzelona, 19-59.
- Azaña, M. (1978): *Memorias políticas y de guerra*, Crítica, II. liburukia, Bartzelona.
- Barriola, I. (1978): *19 condenados a muerte*, Ediciones Vascas, Donostia.
- Barruso, P. (1999): «Del pretorianismo militar a la democracia orgánica. Poder municipal y nuevo estado en Guipúzcoa (1936-1948)», in Batzuen Artean, *Tiempos de silencio. Actas del IV Encuentro de investigadores del franquismo*, 1999ko azaroaren 7tik 19ra, Valentzia, 152-157.
- , (2005): *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Hiria, Donostia.
- Batzuen Artean (2005-2006): *El bombardeo de Guernica. La Guerra Civil española mes a mes. Abril 1937*, Unidad Editorial, 12. liburukia, Madril.
- Bosworth, R. (2005): «Mussolinism: Friends, Family, Locality and Violence in Fascist Italy», *Contemporary European History*, **14**, 23-43.
- Burrin, P. (2003): *Francia bajo la ocupación nazi, 1940-1944*, Paidós, Bartzelona.
- Cabana, A. (2011): «De imposible consenso. Actitudes de consentimiento hacia el franquismo en el mundo rural (1940-1960)», *Historia Social*, **71**, 89-106.
- Calvo, C. (1995a): «El concepto de consenso y su aplicación al estudio del régimen franquista», *Spagna Contemporanea*, **7**, 141-158.
- , (1995b): «Los límites del consenso franquista en Guipúzcoa. Las actitudes del nacionalismo vasco 1936-1942», Comunicaciones presentadas al II Encuentro de Investigadores del Franquismo, 1995eko maiatzaren 11, 12 eta 13an, 2. liburukia, Alacant, 29-36.
- Cantalupo, R. (1948): *Fu la Spagna. Ambasciata presso. Febbraio-Aprile 1937*, Mondadori, Milan.
- Casanova, J. (2008): «Una dictadura de cuarenta años», in J. Casanova, *Morir, matar, sobrevivir*, Crítica, Bartzelona, 3-41.
- Cazorla, A. (2002): «Sobre el primer franquismo y la extensión de su apoyo popular», *Historia y política*, **8**, 303-320.
- Cenarro, A. (2002): «Matar, vigilar y delatar: la quiebra de la sociedad civil durante la guerra y la posguerra en España (1936-1948)», *Historia Social*, **44**, 65-86.
- Centro de Información católica internacional (1940): *El clero y los católicos vasco-separatistas y el Movimiento Nacional*, Madril.
- Chiapuso, M. (1978): *El Gobierno vasco y los anarquistas: Bilbao en guerra*, Txertoa, Donostia.
- Cobo, F. eta Ortega, T. (2005): *Franquismo y posguerra en Andalucía Oriental: represión, castigo a los vencidos y apoyos sociales al régimen franquista, 1936-1950*, Granadako Unibertsitatea, Granada.
- Cossio, F. (1937): *Guerra de salvación*, Librería Santarén, Valladolid.
- De la Granja, J.L. (1989): «Ruiz de Aguirre y la historia. Vida política y obra historiográfica de Sancho de Beurko», *Historia Contemporánea*, **2**, 295-324.

- De Meer, F. (1992): *El partido nacionalista vasco ante la guerra de España (1936-1937)*, EUNSA, Iruñea.
- De Pablo, S.; Mees, L. eta Rodriguez, J.A. (2001): *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco*, II. liburukia, 1936-1979, Crítica, Bartzelona.
- Del Arco, M.A. (2009): «El secreto del consenso en el régimen franquista: cultura de la victoria, represión y hambre», *Ayer*, **76**, 245-268.
- , (2013): «Las cruces de los caídos: instrumento nacionalizador en la «cultura de la victoria», in M.A. Del Arco *et al.*, *No solo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista*, Comares, Granada, 65-82.
- Elosegi, J. (1977): *Quiero morir por algo. Impresionantes memorias de un gudari, testigo excepcional del bombardeo y destrucción de Guernica*, Plaza & Janes, Bartzelona.
- Espinosa, F. (1999): «La memoria del fiscal del ejército de ocupación», in Batzuen Artean, *Tiempos de silencio. Actas del IV Encuentro de investigadores del franquismo*, azaroaren 17-19a, Valentzia, 34-39.
- Font, J. (1999): «“Aspiramos a transformar totalmente la vida en España”. Actitudes de la población ante la implantación del nuevo estado: la política como religión y la religión como política», in Batzuen artean, *Tiempos de silencio. Actas del IV Encuentro de investigadores del franquismo*, azaroaren 17-19a, Valentzia, 333-340.
- Garcia, F. eta Montero, M. (1980): *Historia de Vizcaya*, Txertoa, Donostia.
- Garmendia, J.M. eta Gonzalez, M. (1988): *La guerra civil en el País Vasco. Política y economía*, Siglo XXI, Madril.
- eta ———, (1993): «Crecimiento económico y actitudes políticas de la burguesía vasca, en la posguerra», in Batzuen Artean, *España franquista. Causa General y Actitudes Sociales ante la Dictadura*, Ediciones Universidad de Castilla-La Mancha, Albacete, 179-195.
- Gellately, R. (2004): *La Gestapo y la sociedad alemana. La política nazi (1933-1945)*, Paidós, Bartzelona.
- Geyer, M. eta Fitzpatrick, S. (2009): *Beyond totalitarianism. Stalinism and Nazism Compared*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Gil, P. (2004): *La noche de los generales. Militares y represión en el régimen de Franco*, Ediciones B, Bartzelona.
- Gomez Bravo, G. (2009): *El exilio interior. Cárcel y represión en la España franquista (1939-1950)*, Taurus, Madril.
- Gomez Calvo, J. (2014): *Matar, purgar, sanar. La represión franquista en Álava*, Tecnos, Madril.
- Gomez, G. eta Marco, J. (2011): *La obra del miedo. Violencia y sociedad en la España franquista (1936-1950)*, Península, Bartzelona.
- Hernandez, C. (2013): *El franquismo a ras de suelo: Zonas grises, apoyos sociales y actitudes durante la dictadura (1936-1976)*, EUG, Granada.
- Jackson, G. (2005): *La República española y la guerra civil*, RBA, Madril.
- Juliá, S. (1999): «De guerra contra el invasor a guerra fratricida», in S. Juliá (koord.), *Víctimas de la guerra civil*, Temas de hoy, Madril, 11-56.
- Levi, P. (1989): *Los hundidos y los salvados*, Muchnik, Bartzelona.
- Martinez Reverte, J. (2009): *El arte de matar. Cómo se hizo la Guerra Civil española*, RBA, Bartzelona.
- Martinez Rueda, F. (2007): «Julian Zugazagoitia: socialista bilbaíno, defensor de la república, víctima del franquismo», *Bidebarrieta*, **18**, 199-214.
- Martinez Sanchez, S. (2007): «Mons. Antoniutti y el clero nacionalista vasco (julio-octubre de 1937)», *Sancho el Sabio*, **27**, 39-79.

- Mees, L. (2006): *El profeta pragmático. Aguirre, el primer lehendakari (1939-1960)*, Alberdania, Irun.
- Mir, C. (1999): «Violencia política, coacción legal y oposición interior», *Ayer*, **33**, 115-146.
- Mola, E. (1940): *Obras completas*, Librería Santarén, Valladolid,
- Moreno, F. (1999): «La represión en la posguerra», in S. Juliá (koord.), *Víctimas de la Guerra Civil*, Temas de hoy, Madrid.
- Olazabal C.M. (2009): *Pactos y traiciones. Los archivos secretos de la guerra en Euzkadi*, Atxular Atea, 3 liburuki, Bilbo.
- Ortiz, M. (2005): «Historia social en la dictadura franquista: apoyos sociales y actitudes de los españoles», *Spagna Contemporánea*, **28**, 169- 185.
- Parejo, J.A. (2011): «Fascismo rural, control social y colaboración ciudadana. Datos y propuestas para el caso español», *Historial Social*, **71**, 143-159.
- Prada, J. (2010): *La España masacrada. La represión franquista de guerra y posguerra*, Alianza, Madrid.
- Rodrigo, J. (2003): *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*, Siete Mares, Madrid.
- Saz, I. (2013): «Apuntes conclusivos», in M.A. Del Arco *et al.*, *No solo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista*, Comares, Granada, 223-228.
- Sevilla, F. (2003): «Consenso y violencia del nuevo estado franquista: historia de las actitudes cotidianas», *Historia social*, **46**, 159-171.
- Solé, J. eta Villarroya, J. (1999): «Mayo de 1937 - Abril de 1939», in S. Juliá, *Víctimas de la Guerra Civil*, Temas de hoy, Madrid, 187-276.
- Vargas, F.M. (2001): «El Partido Nacionalista Vasco en guerra. Euzko Gudarostea», *Vasconia*, **31**, 305-343.
- , (2007): *Bermeo y la Guerra Civil*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

